

JAI BATZORDEA
5.BILERA / FESTEN BALORAZIO

Data: 2024-10-09

Ordua: 18:00

Lekua: Bilera gela

Partaideak: Rosario, Mari, Garazi, Iñigo, Leire, Iker eta Nerea

Orokorrean kontuan hartzekoak.

- Tablatua frontoi barrukoa 4*5 muntatzeko jarri beti (batzuetan 4*4koa jarri dugu)
- Pilota markagailuak berritu behar dira.
- Sagardo basoak ez eskatu, badaude.
- Boluntario lanetan ondo zehaztu zer den ekintza bakoitzean egin beharrekoa eta zein orduetan egon behar den eta zeintzuk diren eginbeharrak.
- Ekintza bakoitzeko arduradun zehatza jarri (pertsonek horrek izango du ekintzarako beharrezkoak hartzeaz (tiketak, oharrak etab.)
- Kubierto eta pitxarrak gainbegiratu eta garbitu festa aurretik.
- Garbigailu bat lortu frontoirako. (Biltegian zegoena programa luzekoa omen da eta ez da praktikoa)
- Frontoiko argiteria legezatu (hornidura bakoitzean zein potentzia dugun jakiteko)
- Sarrerako parkinean ura nola jarri aztertu.
- Brigadako lanetan sartu komunen garbiketa egitea.
- Paellako sua ez dabil ondo begiratu eta aurretik ziurtatu gauzak ondo daudela.
- Otordu guztietarako edariak sartuta dauden begiratu.
- Barrakako prezioa negoziatu behar da.
- Ongizate haurrentzat tiket gehiago eskuratu.
- Ijittoa itxuraldatzea komentatu da, adibidez, hurrengo urteko pregoilariak "Katehorratz" taldekoak badira, zapi edo tokilla bat egitea.

JAI BATZORDEA
5.BILERA / FESTEN BALORAZIO

- Plazaren antolaketa baloratu; iritzi ezberdinak egon dira, barrakak bertan egotea egoki irizten dutenak eta espazioa gainkargatua zegoela ziotenak.
- Ekintzak herrian gehiago zabaltzeko aukera baloratzea aipatu zen, dena plazan kontzentratzen baita.

1. Ekintzaz ekintza hobetu beharrekoa:

IRAILAK 19, OSTEGUNA

17:00 HAUR TAILERRA: [Haurrez ez zuten prestaketarako denbora askorik izan, bezperan hasi baitziren lanean. Ordu beteko ekintza oso eskasa da fundamentuzko zerbait egiteko.](#)

18:00 MAHAI JOKOAK ETA ASKARIA JUBILATUETAN [Oso ondo baloratu da.](#)

IRAILAK 20, OSTIRALA, KUADRILA EGUNA

16:30 ZINTA KARRERA eta ASKARIA: [Zinta bakoitzak zenbaki bat du, eta kontuan izan behar da hori. Zinta hartu eta haurrak sari mahaira zinta eraman behar du. Sari batzuk amaitu ziren eta besteak sobratu, ondo eginez gero koadratzeen dute zintek eta sariek.](#)

18:00 PREGOIA eta IJITTO JAITSIERA (Pregoilaria Ijitto elkartea) [Katekorratz taldea izango da hurrengo urtean pregoilari.](#)

Ondoren BURUHANDIAK [Ondo baloratu dira.](#)

18:30 BERTSO- POTEOA. Aratz Igartzabal, Ane Beloki eta Eneko Araiztegi. [Saioa oso goibel joan zen, baloratu da egun eta ordu horretan horrelako saioak ez duela tokirik.](#)

21:00 HERRI AFARIA: [Tiket batzuk jasotzea falta da \(Ikerrek ditu\)](#)

11:30 ITZAL ERROMERIA [Oso ondo baloratu zen](#)

Goizaldera BATXURI eta TXOKOLATE JANA

IRAILAK 21, LARUNBATA, MOZORRO EGUNA, Gaia: "Lanbideak"

[2025ean gaia librea](#)

9:00 GOIZ ERESIA

12:00 BEITIAKO IGOERA: [Txirrinduen kudeaketa modu egokian egin behar da, aurrez txokoan ezin dira utzi.](#)

14:30 PAELLA JANA: [Plater garbiketa eta fidantza kontuari buelta bat eman behar zaio.](#)

17:30 BINGO MUSIKATUA: [Iritzi ezberdinak batzuentzat motza besteentzat luzea. Irabazleei sariren bat ematea proposatu da.](#)

19:00 IJITTO SHOW ETA MOZORROEN DIPLOMA BANAKETA: [Ijitto showko musika lehenago bidaltzeko ardura hartu behar da. Mozorro guztiek aipameneren bat jasotzea egokia izango litzatekeela proposatu zen baina batzordean hori zaila dela aipatu zen.](#)

JAI BATZORDEA
5.BILERA / FESTEN BALORAZIO

20:30 HANBURGESA JANA Oso ondo antolatuta. Erabiltzen den materiala itzuli behar da, zer hartu den apuntatu eta ekintza antolatzen duenaren ardura. Postrea aukerazko platera izatea proposatu zen.

22:00 "SAKATU" ELEKTROTXARANGA: Oso ondo baloratu zen. Jo ondoren afaldu nahi zuten eta hau aurrez egitea eskatu da. 01:00etan hanburgesak berotzen ez ibiltzeko.

01:00 "POTTOKIS" DJak Iritzi ezberdinak egon dira, orokorrean aipatu da reggeton asko eta euskarazko oso abesti gutxi. Kontuan izan behar dugu hau.

IRAILAK 22, IGANDEA

9:00 GOIZ ERESIA

11:00 PUZGARRIAK Frontoian egin behar izan ziren eguraldia dela eta.

12:00 HAMAIKETAKOA Hemen ere ondo zehaztu zein den ekintzaren eginbeharra eta boluntarioen lana.

15:00 PUZGARRIAK

18:00 HERRIKO PELOTARIEN PELOTA PARTIDA ETA FRONTENIS TXAPELKETAKO FINALA Oso ondo baloratu da, giro polita. Fronteniseko irabazleei trofeo bat ematea proposatu da. Hurrengo urtera begira, talde mistoak edo gazte bat heldu baten aurka izatea proposatu da.

19:30 IJITTO IGOERA

20:00 SAGARDO DASTAKETA: Tiketak ez omen ziren azaldu eta prest zeuden. Kartelak jaitsi ziren baina tiketak ez.

3.- Hurrengo urteko kontzertuari begira, hitzartu ia?

Herri bizitzan eta gazteen artean taldeen proposamenak jaso eta bozketa egitea proposatu da. (abenduko bitarte eta ateratzen denarekin) kontratazioa lotu.

Argi azaldu, proposamen eskuragarriak izan behar dutela.

4.- Festetako balorazio ekonomikoa

Oraindik jaso gabe daude faktura eta gastu guztiak, prest dagoenean partekatu dugu.